



## 122. OSOKO BILKURAKO AKTA

Zumaia herrian, 2018ko irailaren 27an, arratsaldeko seietan, udaletxe honetako batzar aretoan Udalbatza eratu da ohiko bilkura egiteko, aurrez zehaztutako eguneko aztergaien arabera. Garaiz eta zuzen deitu direlarik, Udalbatzako kide hauek bertaratu dira:

Lehendakaria: Oier Korta Esnal jna.

Bertaratutako zinegotziak:

M. Cruz Alvarez Aparicio and.  
Gotzon Embil Unanue jna.  
Jon Joseba Iraola Rezola jna.  
Cristina Vicente Iciar and.  
Ane Arregi Urbieta and.  
Alex Oliden Antia jna.  
Arritokieta Iribar Egaña and.  
Josu Arrieta Arriola jna.  
Joseba Josu Azpiazu Azkarra jna.  
Miren Pilare Galfarsoro Madariaga  
and.  
Ione Muguerza Egaña and.  
Arritokieta Marañon Basarte and.

Ez bertaratuak:

Idazkaria: Gorka Urgoiti Agirre



## EGUNEKO AZTERGAIK

### 1.- AURREKO BILERETAKO AKTAREN ONARPENA, BIDEZKO BADA: (119. zbkia – 2018.04.26)

119. proposamen akta onartu da

-----

### 2.- HIRIGINTZA.-

#### 2.1.- IRIZPENA:

#### 2.1.1 HONDARTZETAKO ERABILPENA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZARI BEHIN BETIKO ONARPENA, BIDEZKO BADA,

2018KO IRAILAREN 20KO HIRIGINTZA, OBRA, ZERBITZUAK ETA INGURUMEN BATZORDE INFORMATZAILEAREN IRIZPENA, HONDARTZETAKO ERABILPENA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZARI BEHIN BETIKO ONARPENA EMATEKO IRIZPENA.

### AURREKARIAK

1.- Araudi honen xedea da Zumaia udalerriko kostaldeko hondartzetako erabilera egokia arautzea, herritar guztiok hondartzaz libre eta publikoki gozatzeko daukagun eskubidea kontuan izanda, Udalak bere ahalmenen esparruan, erabilera arrazionala eta iraunkorra bermatzeko, osasun publikoa babesteko eta ingurune egokia mantentzeko, uztailaren 28ko 22/1988 legea, kostaldeei buruzkoaren 115.artikuluan xedatutakoaren arabera 21.1.a) eta f), 22.2.d) artikuluen eta 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen 139. Artikuluen arabera.

2.- Ikusirik 2018ko apirilaren 16ko Hirigintza, Obra, Zerbitzuak, Ingurumena eta Udaltzaingoaren Batzordeetan HONDARTZETAKO ERABILPENA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZARI buruz informatu zela.

3.- 2018ko ekainaren 28an Gipuzkoako Itsasertz Zerbitzuak ordenantza agerraldi publikoan alegazioak aurkeztu zituen (erantsita daude)

4.-Ikusirik Udal teknikariak Gipuzkoako Itsasertz Zerbitzuak aurkeztutako alegazioei buruz egindako txostena.

### IRIZPENA

Ondorioz, 2018ko irailaren 20ko Hirigintza, Obra, Zerbitzuak, Ingurumena eta Udaltzaingoaren Batzordean, ondorengo botoekin:

Alde: Oier Korta Esnal (EAJ)  
Marikruz Alvarez Aparicio (EAJ)  
Arritxu Marañon Basarte (PSEE)  
Josu Arrieta Arriola(Bildu)

Kontra: 0  
Abstentzioa: 0



**Zumaia Udal**

2018IAKU0006-N18/0059

**ALDEKO** irizpena eman du eta honako Proposamen hau udalbatzako osoko bilkuraren iritzipean jartzea erabaki du, azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuz onartutako Herri Administrazioen

Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozeduraren Arautegiaren 135.3 artikulua xedatutakoaren arabera, araututakoari jarraituz, erabakia udalbatzako bertan daudenen gehiengo

sinplea beharko delarik, apirilaren 2ko 7/1985 Toki Erakundetako Oinarrietako 22.2.d) eta 47. artikuluan ezarritakoaren arabera, ondorengo **PROPOSAMENA** egin da:

**LEHENA.**- Gipuzkoako Itsasertz Zerbitzuak aurkeztutako alegazioak zati batean onartzea.

**BIGARRENGOA:** HONDARTZETAKO ERABILPENA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZARI behin betiko onarpena ematea.

**HIRUGARRENGOA:** Ordenantzaren behin betiko onespeneren iragarkia eta Dokumentuaren testu bateratua GAOn argitaratzea.

Zumaian, 2018ko irailaren 20an.  
Oier korta Esnal  
Alkatea

## ERABAKI ZATIA

**Aldeko botoak: 13 boto (5 EAJ-PNV, 6 EH BILDU, 1 ATXIKI**

**GABEKOA, 1 ES-SV)**

**Kontrako botoak: 0**

**Abstentzioak: 0**

**ERABAKIA:** 1.- HONDARTZETAKO ERABILPENA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA behin betiko izaeraz onartzen da

2.- Ordenantzaren behin betiko onespeneren iragarkia eta Dokumentuaren testu bateratua GAOn argitaratzea.

-----

**2.2.- PROPOSAMENA:**

**2.2.1.- "12.2. TORREAGA" GUNEARI -TORREAGABERRI- DAGOKION HITZARMENAREN HASIERAKO ONARPENA, BIDEZKO BADA.**

## ERABAKI ZATIA

**Aldeko botoak: 13 boto (5 EAJ-PNV, 6 EH BILDU, 1 ATXIKI**

**GABEKOA, 1 ES-SV)**

**Kontrako botoak: 0**

**Abstentzioak: 0**



**ERABAKIA:** Gaia tratatzea erabakitzen da,

**PROPOSAMENA**

**"12.2. TORREAGA" GUNEARI DAGOKION HITZARMENAREN HASIERAKO ONESPENARI DAGOKIONA.**

**AURREKARIAK**

1.- 2004KO Arau Subsidiarioetan (2006 urtean argitaratuak) 12. HA Estazioa I guneko, 12.2. Torreaga gauzatze unitaterako 34.000 m<sup>2</sup>(s) Hirigintza eraikigarritasuna ezartzen ziren, modu honetan banatuak:

- 23.595 m<sup>2</sup>(s) lur gainetik etxebizitza erabileretako.
- 8.405 m<sup>2</sup>(t) lur azpitik garaje eta trasteleku erabilerentzako.
- 2.000 m<sup>2</sup>(t) s lur gainetik erabirela komertzialarentzako

2.- 2007ko martxoaren 13ko batzarraldian (GAO 2007ko apirilaren 12ko 71zbk.) , Zumaia Hiri Antolaketako arauen aldaketa, Torreaga 12. Hirigintza Areako (U.E. 12.2) babes ofizialeko etxebizitzak 1. alorrera (Puntanueeta II) aldatzeari, Torreaga 12.2 jardun unitatea berrantolatzeari eta hirigintza arauen 34.3 artikuluko zehaztapenak osatzeari buruzkoari behin betiko onspena eman zitzaion, baldintza hauekin:

- Babes ofizialeko etxebizitzak eraikitzeke lizentzia betebeharrak betetzetik salbuetsita dauden etxebizitza librean eraikitzeke lizentzia baino lehenago emango da edo aldi berean.
- Torreaga 12.2 Jardun Unitatean %20ko bakantzearen ondoriozko babes ofizialeko 9 etxebizitza berriak eremu horretan bertan eraikiko dira.

3.- Bitartean, 2006ko maiatzaren 9an, Fundiciones Torreaga S.L. eta Zumaia Udalak Hirigintza Hitzarmena sinatu zuten gunea modu egokian garatu ahal izateko.

Data berarekin, 2006ko Maiatzak 9m Promociones Torreaga S.L. eta Zumaia Lantzen S.A.-ren artean beste Hitzarmen bat sinatu zen. Hitzarmen honetan Zumaia Lantzen bere alorrean Torreagari zegozkion babes ofizialeko etxebizitzak eraikitzeak suposatzen zuen galera ekonomikoa kuantifikatu, ordainsarien epeak, e.a. ezartzen ziren.

2010eko Ekainaren 2an eta 2012ko Abenduaren 28an Hitzarmen honen hainbat eranskin sinatu ziren, une horietan higiezin merkatuak pasatzen ari zen krisia dela eta Promociones Torreaga S.L-k zailtasunak baitzuten egin beharreko ordainketei aurre egiteko.

4.- 2017ko urtarrilean "Construcciones Sukia"-K, CAJA LABORAL POPULAR S.COOP.CTO-ren izenean (ISGA INMUEBLES, S.A), "12.2. TORREAGA (ZUMAIA)" hirigintza-gunea garatzeko proposamena aurkeztu zion Zumaia Udalari.

Proposamen horretan, eraikuntzen bolumenen antolakuntza berri bat aurkeztu zen, ingurunearekin egokiago lotzen zena. Aurrez Torreagako Barne erreformako Plan Berezian aurreikusten zuen U formako eraikina ibaiari eta ibai ertzeko pasealekuari begira garatzen den hirigintza antolamendu irekiago batengatik ordezkatuaz .

5.- Hirigintza garapen hau egin ahal izateko harturiko akordioak ISAGA INMUEBLES S.A.-k aurkezturiko Hitzarmenean jasotzen dira. Hitzarmenaren ardatza nagusiak hauek:

Antolatu beharreko etxebizitzetarako eraikigarritasuna irizpide hauek jarraituta antolatuko da:

- \* %20% etxebizitza sozialen erregimena izango du (lehengo BOE erregimen orokorra).
- \* %20% etxebizitza tasatuen erregimena izango du.(1,55 modulua)
- \* Gainontzeko %60 eraikigarritasuna sustapen libreko erregimenera lotuko da.



**Zumaia Udala**

Aurrez Puntanuetan eraiki beharreko BOE-k Torreagara bueltatzen dira, bi guneen arteko lotura amaitzen da.

2018IAKU0006-N18/0059

123/2012 Dekretatuaren bete beharraren ondorioz Udalak 1.500 m<sup>2</sup> lokal bat jasoko du.

6.- 2018ko irailaren 3ko batzordean gaia azaldu zen.

7.- 2018ko irailaren 14 alderdi politiko guztien ordezkariak Construcciones Sukiarekin bilera izaten dute eta planteatzen den Hirigintza ekintzaren informazioa jasotzen dute.

8.- 2018ko irailaren 20ko Hirigintza Batzordean gaia proposamen modura hurrengo osoko bilkurara eramatea adosten da.

### PROPOSAMENA

Ondorioz, 2018ko Irailaren 28ko Osoko Bilkuran ondorengo botoekin:

Alde:  
Aurka:  
Abstentzioc:

ALDEKO irizpena eman du eta honako Proposamen hau udalbatzako osoko bilkuraren iritzipean jartzea erabaki du, azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuz onartutako Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozeduraren Arautegiaren 135.3 artikulua xedatutakoaren arabera, araututakoari jarraituz, erabakia udalbatzako bertan daudenen gehiengo osoa beharko delarik, apirilaren 2ko 7/1985 Toki Erakundetako Oinarrietako 47.2 artikuluan ezarritakoaren arabera, ondorengo PROPOSAMENA egin da:

1.- ISGA INMUEBLES, S.A eta Zumaia Udalaren arteko "12.2. Torreaga" guneari dagokion hirigintza-hitzarmenari hasierako onepena ematea.

2.- Lurralde historikoko aldizkari ofizialean argitaratuko da hitzarmena osorik, eta jendaurrean jarriko da, gutxienez 20 eguneko epean, alegazioak aurkeztu ahal izateko.

Zumaian, 2017ko Irailaren 28an  
ALKATEA  
Oier Korta Esnal

### ERABAKI ZATIA

**Aldeko botoak:** 7 boto (5 EAJ-PNV, 1 ES-SV, 1 ATXIKI GABEKOA)

**Kontrako botoak:** 0

**Abstentzioak:** 6 boto (6 EH BILDU, )

**ERABAKIA:** 1.- Hasierako onarpena ematea, ISGA INMUEBLES, S.A eta Zumaia Udalaren arteko "12.2. Torreaga" guneari dagokion hirigintza-hitzarmenari; jendaurreko agerraldian ezarriko da gutxienez 20 eguneko epean espediente, iragarkia Lurralde historikoko aldizkari ofizialean argitaratzen den biharamunetik hasita, erreklamazioak eta iradokizunak aurkezteko.



2.- Jendaurreko erakusketako epealdia amaitu ondoren, Udal Korporazioak aurkeztu diren erreklamazioak ebatziz behin betiko erabakia hartuko du, eta erreklamaziorik aurkezten ez bada behin behinekoa zen erabakia behin betiko hartutzat ulertuko da.

3.- Behin betiko erabakiaren testu bateratua Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean argitaratu beharko da, eta ez da indarrean jarriko argitaratzen ez den bitartean.

-----

### 3.- **PERTSONALA.-**

#### 3.1.- **IRIZPENA:**

3.1.1- **2018 URTERAKO ESTATUKO AURREKONTU OROKORRAREN 6/2018 LEGEA, UZTAILAREN 3KOAK ARAUTUTAKOAREKIN BAT, ZUMAIACO UDALEKO ETA ZUMAIACO KIROL PATRONATUKO LANGILEEN ORDAINSARIEN IGOERAREN ONARPENA, BIDEZKO BADA.**

2018KO IRAILAREN 20KO PERTSONAL BATZORDEAREN IRIZPENA 2018 URTERAKO ESTATUKO AURREKONTU OROKORRAREN 6/2018 LEGEA, UZTAILAREN 3KOAK ARAUTUTAKOAREKIN BAT, ZUMAIACO UDALEKO ETA ZUMAIACO KIROL PATRONATUKO LANGILEEN ORDAINSARIEN IGOERAREN ONARPENAREN INGURUKOA.

#### **AURREKARIAK**

1.- 2018ko uztailaren 4an, Estatuko Aldizkari Ofizialean, 2018rako Estatuko Aurrekontu Orokorraren 6/2018 Legea, uztailaren 3koa, argitaratu zen.

2.- Aipatutako Legearen 18. artikularen 2. puntuan, ondorengo arautzen da:

*"En el año 2018, las retribuciones del personal al servicio del sector público no podrán experimentar un incremento global superior al 1,5 por ciento respecto a las vigentes a 31 de diciembre de 2017, en términos de homogeneidad para los dos períodos de la comparación, tanto por lo que respecta a efectivos de personal como a la antigüedad del mismo".*

3.- 18. artikuluan baita, arautzen da, aurreko paragrafoan aipatutako igoeraz gain,

*" Si el incremento del producto Interior Bruto (PIB) a precios constantes alcanzara o superase el 3,1 por ciento se añadiría, con efectos de 1 de julio de 2018, otro 0,25 por ciento de incremento salarial".*

2018ko uztailaren 13ko Ministroen Kontseiluan onartu zen %0,25ko igoera gehigarria, kontuan izanik 2017ko BPGd (Barne-produktu gordina) datua.

4.- 18. artikularen 5 puntuan zehazten dira, aipatutako igoeraren aplikazioaren ondorioz, langile publikoen ordainsari gordina osatzen duten kontzeptuen (soldata, hurrtekoa, lanpostuaren mailako osagarria eta lanpostuaren berriazko osagarria) kopuru berriak eta aplikazioaren inguruko zenbait aipamen egiten dira.

5.- Guzti hori kontuan izanik, alde batetik, 2018ko urtarila 1eko eragin datatik %1,5ko igoeraren ondorioz eta bestetik, 2018ko uztailaren 1eko eragin datatik %1,75ko igoeraren ondorioz, egokituko dira Zumaia Udaleko eta Zumaia Kirol Patronatuko langileen ordainsariak osatzen dituzten kontzeptuak eta ondorioz, urteko ordainsari gordinak.



**Zumaia Udala**

2018IAKU0006-N18/0059

6.- Bestetik, igoseraren aplikazioaren ondorioz, Zumaia Udaleko eta Zumaia Kirol Patronatuko 2018ko aurrekontuetan aurreikusitako I. Kapituluari dagokion aurrekontua nahikoa ez balitz, Zumaia Udalaren 2018ko aurrekontuaren kreditu globalaren erabilera aurreikusita dago.

### IRIZPENA

Ondorioz, 2018ko irailaren 20ko Pertsonal Batzorde informatzaileak, ondorengo botoekin:

Alde:

Marikruz Alvarez (EAJ)

Oier Kortza (EAJ)

Joseba Josu Azpiazu (EH-Bildu)

Arrixu Marañon (ES/SV)

**ALDEKO** irizpena eman du eta honako Proposamen hau Osoko Bilkuraren iritzipean jartzea erabaki du, azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuz onartutako Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozeduraren Arautegiaren 135.3 artikulua xedatutakoaren arabera, araututakoari jarraituz, erabakia udalbatzako bertan daudenen gehiago sinplea beharko delarik, apirilaren 2ko 7/1985 Toki Erakundetako Oinarrietako 22.2.i) eta 47. artikuluan ezarritakoaren arabera, ondorengo **PROPOSAMENA** egin da:

1.- 2018ko uztailearen 3ko 2018rako Estatuko Aurrekontu Orokorren 6/2018 Legeak arautzen duena kontuan izanik, Zumaia Udaleko eta Zumaia Kirol Patronatuko langileen ordainsariei, alde batetik, 2018ko urtarrilaren 1eko eragin datatik ekainaren 30era arte, %1,5ko igosera aplikatzea eta bestetik, 2018ko uztailearen 1eko eragin datatik aurrera 1,75% igosera aplikatzea.

Zumaian 2018ko irailaren 20an  
Marikruz Alvarez Aparicio  
Pertsonaleko batzordeburua

### ERABAKI ZATIA

**Aldeko botoak:** 13 boto (5 EAJ-PNV, 6 EH BILDU, 1 ATXIKI GABEKOA, 1 ES-SV)

**Kontrako botoak:** 0

**Abstentzioak:** 0

**ERABAKIA:** 1.- Zumaia Udaleko eta Zumaia Kirol Patronatuko langileen ordainsariei, alde batetik, 2018ko urtarrilaren 1eko eragin datatik ekainaren 30era arte, %1,5ko igosera eta bestetik, 2018ko uztailearen 1eko eragin datatik aurrera 1,75% igoserak onartzen dira.

-----  
4.- **PROPOSAMENAK ETA MOZIOAK.-**



**ERABAKI ZATIA**

**Aldeko botoak:** 13 boto (5 EAJ-PNV, 6 EH BILDU, 1 ATXIKI GABEKOA, 1 ES-SV)  
**Kontrako botoak:** 0  
**Abstentzioak:** 0

**ERABAKIA:** Etxebizitzen alokairu beka arautzen duen ordenantzaren inguruko Mozioaren urgentzia berretsi da,

-----

**ERABAKI ZATIA**

**Aldeko botoak:** 6 boto (5 EAJ-PNV, 1 ES-SV)  
**Kontrako botoak:** 0  
**Abstentzioak:** 7 boto (6 EH BILDU, 1 ATXIKI GABEKOA)

**ERABAKIA:** Etxebizitzen alokairu beka arautzen duen ordenantza onartu egiten da.

-----

**4.1.- EH-BILDU, UDAL TALDEAK AURKEZTURIKO PROPOSAMENAK:**

**Aldeko botoak:** 13 boto (5 EAJ-PNV, 6 EH BILDU, 1 ATXIKI GABEKOA, 1 ES-SV)  
**Kontrako botoak:** 0  
**Abstentzioak:** 0

**ERABAKIA:** EH BILDUK aurkeztutako bi proposamenak tratatzea onartzen da,

-----





**4.1.1.- ETXEBIZITZEN ALOKAIRU BEKA HOBETZEKO**

**Aldeko botoak:** 8 boto (6 EH BILDU, 1 ATXIKI GABEKOA, 1 ES-SV)

**Kontrako botoak:** 0

**Abstentzioak:** 5 boto (EAJ-PNV)

**ERABAKIA:** EH BILDUK AURKEZTUTAKO ETXEBIZITZEN ALOKAIRU BEKA HOBETZEKO PROPOSAMENA ONARTZEN DA.

-----

**4.1.2.- HONDARTZETAKO SOROSPEN ZERBITZUARI DAGOKIONA**

**Aldeko botoak:** 12 boto (5 EAJ-PNV, 6 EH BILDU, 1 ATXIKI GABEKOA,)

**Kontrako botoak:** 0

**Abstentzioak:** 1 boto ( ES-SV)

**ERABAKIA:** EH BILDUK AURKEZTUTAKO PROPOSAMENA HONDARTZETAKO SOROSPEN ZERBITZUARI DAGOKIONA ONARTZEN DA.-

-----

**5.- ESKARI-GALDERAK.-**

Alex Olidenek (EH BILDU) Mollaberriko Estazio Zaharraren erosketa Algorri Interpretazio Zentro erabilerara lotuta dagoela adierazten duten bi komunikabideetan azaldutako berriaren inguruan galdetu du; berez, erabaki zelako gaia Turismo mahaian eztabaidatuko zela.

Jon Iraola (Atxiki gabekoa) deialdiaren ondoren aurkeztu duen idatzia zergatik ez den tratatu galdetu du.



**Zumaia Udalak**

2018IAKU0006-N18/0059

-----

Eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkate Lehendakariak bilera amaitutzat eman du, arratsaldeko zortziak hogeit gutxi direnean eta nik, Idazkariak, fede ematen dut.

Idazkaria